


Euskadin emakume gazteak gizon gazteak baino pesimistagoak dira beren lan-aurreikuspenei buruz galdetzean

Gazteen Euskal Behatokiak [Aurrera Begira](#) izeneko ikerketaren bosgarren edizioa aurkeztu du, 2017 urteari dagokiona, hain zuzen ere.

Ikerketaren emaitzek adierazten dute une honetan Euskadin gizon gazteen lan-aurreikuspenak emakume gazteenak baino hobeak direla.

- Lanean dabiltzan emakume gazteek gizon gazte okupatuek baino neurri handiagoan uste dute urtebeteko epean beren enplegua galdu ahal dutela edo beren lan-baldintzak okertu ahal direla (emakume okupatuen % 37k eta gizon okupatuen %29k uste dute hori).
- Langabezian dauden gizon gazteek emakume langabe gazteek baino konfiantza handiagoa dute urtebeteko epean lana aurkitzeko (% 82k eta % 74k, hurrenez hurren).
- Ikasleen artean, mutilek neskek baino gehiago pentsatzen dute ikasketak bukatzean beren formazioari lotutako lana aurkituko dutela (mutilen % 78k eta nesken % 71k, hain zuzen ere).

Bestalde, emakume gazteak gizon gazteak baino optimistaxegoak agertu dira etorkizunaren aurrean duten konfiantzari buruz galdetzean (0-100 arteko eskalan 76 puntu lortzen dituzte emakumeek etorkizunarekiko konfiantza indizean eta 73 puntu gizon gazteek), bai eta etorkizunean atzerrira emigratzeari buruz galdetu zaienean ere (emakumeen % 9k uste dute atzerrira emigratu beharko dutela, nahi ez badute ere, eta gizonen kasuan % 13k uste dute derrigorrez emigratu beharko dutela).

 AURRERA BEGIRA 2017: GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO ADIERAZLEAK			
	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Egungo egoeraren balorazio indizea (0-100)	69	68	69
Norberaren poztasun indizea (0-100)	79	79	79
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (%)	37	29	33
Lana aurkitzea aurreikustea (%)	74	82	78
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (%)	71	78	74
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (%)	9	13	11
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (%)	46	46	46
Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea (0-100)	72	69	70
Etorkizunarekiko konfiantza indizea (0-100)	76	73	75

Aurrera begira ikerketa 2013an sortu zuen Gazteen Euskal Behatokiak eta ordutik hona urtero burutu izan du. Ikerketa honen helburua bikoitza da: alde batetik, Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina jakitea eta, bestetik, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak ezagutzea.

Horretarako Euskadiko gazteriaren lagin adierazgarri bati inkesta bat egiten zaio telefonoz. Lagina 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gaztek osatzen dute, 756 gizonek eta 756 emakumek.

[Txosten osoa](#) Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean kontsulta daiteke eta bertan urtez urteko bilakaera eta adin-taldearen eta lurralde historikoaren araberako aldeak ikusi.